ANEXO III

HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA

LAGUNTZA-MODALITATEA	DOKTORATU AURREKO LANGILE IKERTZAILE. “IKERTALENT 2026”
PROIEKTUAREN KODEA	P2
IZENBURUA	ERRESILIENTZIAREN ETA KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO GAITASUNAREN IRAGARPEN GENOMIKOA, ARRANTZA-KUDEAKETA INFORMATZEKO
ZENTROA	AZTI SUKARRIETA (PASAIA BALORA DAITEKE)
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	BIOTEKNOLOGIA ETA EKOLOGIA MOLEKULARRA (BEM)
IKERKETA-TALDEA	BIOTECNOLOGÍA Y ECOLOGÍA MOLECULAR (BEM)
PROIEKTUAREN TUTOREAK	ALICE MANUZZI, NATALIA DÍAZ-ARCE, GUILLEM CHUST
PROIEKTUAREN LABURPENA	PROIEKTU HONEN HELBURUA GENOMIKAN ETA EPIGENOMIKAN OINARRITUTAKO TRESNAK GARATZEA DA, ARRANTZA-ESPEZIEEK KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN DUTEN ERRESILIENTZIA ETA EGOKITZEKO GAITASUNA IRAGARTZEKO. HORRETARAKO, DATU GENOMIKO ETA EPIGENOMIKO ZABALEN MULTZOAK INTEGRATUKO DIRA, HALA NOLA WGS, RAD-SEQ, SNP ARRAYS ETA RRBS. DATU HORIEN BIDEZ, EGOKITZAPEN-MEKANISMOAK AZTERTUKO DIRA, GENETIKA, MODELIZAZIOA ETA EZAGUTZA EKOLOGIKOA UZTARTZEN DITUEN DIZIPLINARTEKO IKUSPEGI BATEN BIDEZ. ERA BEREAN, INGURUMEN-ALDAGAIAK INTEGRATUKO DIRA, ESPEZIEEN ETORKIZUNEKO UGARITASUNEAN, BANAKETAN ETA EGOKITZEKO GAITASUNEAN IZANGO DIREN ALDAKETAK ZENBATESTEKO AUKERA EMANGO DUTEN IRAGARPEN-EREDUAK GARATZEKO. PROIEKTUA BAT DATOR SAILBURUORDETZAK LEHENETSITAKO ARLO TEMATIKOEKIN ETA PEGAREN ETA PCTI 2030AREN HELBURU ETA JARRAIBIDEEKIN, EZAGUTZA ETA TRESNA APLIKATUAK SORTZEN BAITITU ARRANTZA-KUDEAKETA JASANGARRIAGOA, ERRESILIENTEAGOA ETA BERRITZAILEAGOA IZAN DADIN ALDAKETA GLOBALAREN TESTUINGURUAN.
BESTE INFORMAZIO BAT	ONARTUTAKO TITULAZIOAK: BIOLOGIA, ITSAS ZIENTZIAK, BIOTEKNOLOGIA, BIOKIMIKA, BIOINFORMATIKA, INGURUMEN ZIENTZIAK EDO ANTZEKO BESTE TITULAZIO BATZUK. PROIEKTUA GENREACT EKIMENAREN TESTUINGURUAN GARATZEN DA. DIZIPLINA ANITZEKO EKIMEN HONEK DATU GENOMIKOAK, EPIGENOMIKOAK ETA INGURUMENEKOAK INTEGRATZEN DITU ITSAS POPULAZIOEN EBALUAZIOA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN DUTEN ERANTZUNA HOBETZEKO. HAUTATUTAKO PERTSONA GENREACT PROIEKTUAN INTEGRATUKO DA, GENOMIKA, EKOLOGIA, MODELIZAZIOA ETA ARRANTZA-KUDEAKETA UZTARTZEN DITUEN DIZIPLINA ANITZEKO INGURUNE BATEAN. PRESTAKUNTZA-PLANAK HONAKO HAUEK BARNE HARTZEN DITU: •POPULAZIO-GENOMIKAN, EPIGENOMIKAN ETA DATU OMIKOEN ANALISI BIOINFORMATIKOAN PRESTAKUNTZA AURRERATUA. •MODELIZAZIO EKOLOGIKOAN ETA KLIMA-ALDAKETAREN INPAKTUEN IRAGARPENEAN TREBETASUNAK GARATZEA. •ARRANTZA-EBALUAZIOAN ADITUAK DIREN NAZIOARTEKO SAREETAN PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA. •GENOMIKAN ETA MODELIZAZIOAN ERREFERENTZIAZKO NAZIOARTEKO ZENTROETAN EGONALDIAK EGITEA. •NAZIOARTEKO KONGRESU ETA TAILERRETAN PARTE HARTZEA.PROIEKTUAK NAZIOARTEKO IZAERA HANDIKO ETA EZAGUTZA-TRANSFERENTZIARA BIDERATUTAKO LAN-INGURUNEA ESKAINTZEN DU, ARRANTZA-KUDEAKETAN AHOLKU ZIENTIFIKOA EMATEN DUTEN ERAKUNDEEKIN ZUZENEKO HARREMANA ETA ELKARLANA SUSTATUZ.
HARREMANETARAKO DATUAK	AMANUZZI@AZTI.ES